

BALIO PROPOSAMENA

ZER BEHAR EDO ARAZO KONPONTZEN DUGU?

Eusko label produktuak nahi dituzten pertsoneri, produktu hauek kontsumitzailearen eskuetara iristea bermatzen dugu.

Gaur egun, bizi garen mundu globalizatuari esker atzerrian dagoen jendeak bere jaioterriko produktuak lortzea inoiz baino errazagoa da. Ondorioz, gure enpresaren bitartez atzerrian lanean ari diren eta bere herrialdeko produktuak faltan botatzen dituen jendeak bere herrialdeko produktuak eskuragarri izango ditu.

ZERK BEREIZTEN ZAITU ETA, BERAZ, ZERGATIK EGONGO DA BEZEROA ZURI ORDAINTZEKO PREST?

Bezeroek gure enpresa aukeratuko dutenaren arrazoia hau da; bere jaioterritik urrun bizi direnez eta hau faltan botatzen dutenez, bere herrialdeko produktuak faltan botako ditu. Horregatik, gure enpresa aukeratuko dute, beraien jaioterriko produktuak eskuratzeko, gure enpresa aukeratzeko joera izango dute.

Gure enpresaren balioa kualitatiboa da. Eusko Label produktuak eskaintzen ditugunez, bezeroek gure enpresa aukeratuko dute. Hau da, guk eskainitako produktuen kalitate eta jatorriarengatik aukeratuko gaituzte.

Lehiakideetatik bereiziko gaituzten berezitasunak produktuen kalitatea, jatorria eta bezeroarekiko eskuragarritasuna izango da.